Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2022-07-19(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAk erabagi hau hartu dauela:

## 10.- GIDABAIMENA EUSKERAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO 2022. URTERAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

### Xedea

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2022. urterako diru laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko Oinarri horien artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako diru laguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkurak, zenbait berariazko oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako diru laguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hirugarrena: Kontu-hartzaileak, 2022ko uztailaren 13an aldeko txostena egin du.

### Argudioak

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Diru laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2022ko ekainaren 16ko 2037.zenbakidun Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

CSV: 07E6000A36F700U6P8S0D9G8G4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A36F700U6P8S0D9G8G4

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/07/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 20/07/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/07/2022 09:44:26

EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0153
Datea: 06/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

LEHENENGOA: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2022. urterako diru laguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 8an eta 2020ko urriaren 26an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren web gunean deialdi honen publizitatea argitaratzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaren arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

*Orri-oinean sinatzailea eta data*

CSV: 07E6000A36F700U6P8S0D9G8G4